



Gizalana

Maiatza 2012

ZERBITZU PUBLIKOETAKO LANGILEEN BOLETINA

EDITORIALA

Eusko Jaurlaritzak ez digu ziririk sartzen!

ELA eta EILASEk EAEn maiatzak 31rako deituta genuen greba deialdiaren birmoldaketa erabaki dugu eta egun horretarako kontzentrazio, itxialdi eta kaleko protesten borroka eta mobilizazio eguna planteatzen dugu.

Argi dago EAeko sektore publikoan gobernuak eragindako nahaste-borraste baten aurrean aurkitzen garela. Sindikatuen eta euskal gizarte osoaren Madrileko murrizketen errefesutze argiak, hauteskunde aurreko giroan, Eusko Jaurlaritza Alderdi Popularretik urrundu nahi izatera eraman dute eta, ondorioz, bere burua zuritzera EAEn azken murrizketak inongo efekturik izango ez dutela esanez.

ELA eta EILASEk ez dugu sinisten, are gehiago, Eusko Jaurlaritza aspaldi ari da bere murrizketa propioak inposatzen. Hala ere, kontzientzia gara epe luzeko borroka batean gaudela eta beharrezkoa dela indarrak zein denborak neurtzea. Garrantzitsua da ideien borroka irabaztea, baina baita estrategia-rena ere. Horregatik, zerbitzu publikoen erasoei modu tinkoenean erantzuteko, beste deialdi batzuk errespetatuz, 31ko eguna birmoldatzea erabaki dugu.

Uste dugu erabaki honek, epe luzekoa den borroka honetan eta Eusko Jaurlaritzaren joko zikinaren aurrean, hobe kokatzen gaituela; eta orain, gobernuak suspentsoan utzi dituen murrizketak aplikatzeko asmoa agertzen duenean hobe erantzuteko moduan. Argi izan dezatela Madrilek inposatutako murrizketak aplikatzen badituzte edo beste batzuk asmatzen badituzte ELAK zerbitzu publikoetako langileak grebara deituko dituela. Defenda dezakeguna besterik ez baitugu izango.

GURE LAN BALDINTZEN DEFENTZAN

Maiatzak 31, zerbitzu publikoak borrokan

ELAK ETA STEE-EILASEK ZERBITZU PUBLIKOEN ETA HAUETAKO LANGILEEN BALDINTZEN MURRIZKETAK SALATZEKO 31RAKO MOBILIZAZIO DEIALDIA ALDATU EGIN DUTE

ELAK eta STEE-EILASEk maiatzaren 31rako zerbitzu publikoetarako egin zen deialdia aldatzea erabaki dute; 31 borroka eta mobilizazio eguna izango da, elkarretaratze, itxialdi eta kaleko protestekin. Eguna amaitzeko hiru manifestazio izango dira, 18.30ean Gasteiz, Bilbo eta Donostian. Gizalan federazioko Igor Eizagirre idazkari nagusiak deialdia aldatzeko arrazoiak azaldu dizkigu, baita murrizketa gehiago etorri gero egin litezkeen ekintzei buruz ere.

-Zerk eragin du EAeko zerbitzu publikoetan maiatzaren 31rako deituta zegoen greba utzi eta borroka eta mobilizazio eguna izan dadin erabakitzea?

-Argi dago EAeko arlo publikoan erabateko nahasmena dela nagusi. Presio sindikalak eta Madrilek erabaki dituen murrizketen aurka euskal gizarte osoak emandako erantzun tinkoak Eusko Jaurlaritza mugiarazi egin du, hauteskundeetara begira noski, PPrengandik alden du nahian; aurpegia garbitu nahi dute eta horregatik esan dute murrizte neurri horiek EAEn ez dutela inongo eraginik izango.

Manifestazioak 18:30etan Bilbo, Gasteiz eta Donostian

Egunean zehar mobilizazioak lan-zentroetan

Bertan erabaki!

ELA STEE/EILAS

ELAK eta STEE-EILASEk ez dugu hori sinesten: izan ere, aspaldion ari da Eusko Jaurlaritza bere murrizketak ezartzen. Halere, badakigu epe luzeko lehia batean gaudela, eta

Eusko Jaurlaritza, helburu elektoralistak bultzaturik, langile publikoak eta gizartea murrizketak aplikatzeko bere asmoekin jolasten ari da



honetan epe eta indarrak ondo neurtzea ezinbestekoa da. Garrantzitsua da ideietan irabaztea, baina baita estrategian ere. Horregatik, zerbitzu publikoari egiten zaizkien erasoei ahalik erantzun indartsuena emateko, eta beste deialdi batzuk errespetatzen ditugula, maiatzaren 31 borroka eta mobilizazio eguna bihurtzea erabaki dugu.

-Esan daiteke, beraz, EAEko arlo publikoko greba atzeratu baino ez dela egin...

-Jaurlaritzak Madrildik diktatu diren murrizketak aplikatu gero, edota beste batzuk erabakiz gero, langile publiko guztiak grebara deituko ditugu. Horretan ez dago zalantza egiterik. Egunbetekoa edo luzeagoa; zehaztuko dugu murrizketa gehiago aplikatzen saiatzen diren bezain pronto.

Halaber, lantokietako eta zerbitzu publiko desberdinetako mobilizazio dinamika eutsiko diogu, eta mantendu egiten dugu ere Hegoaldeko lau hiriburuetan maiatzaren 20an eta 26an deituta dauden manifestazioen aldeko deialdia, ia 60 gizarte-mugimenduk eta sindikatuk plazaratu dutena.

-Ez da adostasunik izan LABekin eta ESKrekin 31ko eguna nola birplanteatu erabakitzeko. Zertan da arlo publikoko ekintza bateratua?

-Gure asmoa da arlo publikoan egiten diren murrizketei erantzun ahalik zabalena eta adostuena ematen jarraitzea. Hain zuzen, unean-uneko gorabeherak gorabehera, 31ren ingurukoa kasu, guk ekintza bateratu ahal den zabalena, eragingarriena eta errealena izatea nahi dugu, langile publikoen eta langile-klase guztiaren eskubideek jasaten dituzten erasoei aurre egiteko.

-Lehenago esan duzu ez diogula Jaurlaritzari sinesten Madrildik agindutako murrizketak aplikatu ez dituenik. Zergatik?

-Ez ditugu sinesten autonomiaren eta zerbitzu publikoen alde babatean botatzen hasi diren diskurtso horiek, duela hiru urte hasi baitziren Madrilen esanetara murrizten, eta hemen ere antzera mozten. Adibidez, Zapateroren gobernuak ezarritako neurri guztiei segidismoa egin die, eta murrizketa batzuk



ELA eta STEE-EILASeko ordezkariek maiatzaren 31ko mobilizazio eta borroka eguna aurkezteko egindako prentsaurrekoan



bere kabuz erabaki ditu: soldata jaitsierak, enplegu suntsipena, enplegu arloko akordioak ez betetzea, lan-baldintzak, aldi baterako ezintasunen estaldura, erretiroak, ordezkapenak, aurrekontuen zuzkidura...

Haatik, guztiok dakigu laster hauteskundeak izango direla eta PSE beldur da azken urteotako mobilizazio dinamika eta euskal langileek zein herritar gehienek murrizketen aurka agertu duten jarrerak botoak galtzea ekar liezaiekeela.

Baina urtetan murrizten ari izan badira, nork ziurta dezake ez dutela berriro hala jokatu?

-Emaiguzu mezu bat arlo publikoko langileentzat eta herritarrentzat oro har.

-ELAk dei egiten die langile guztiei aipatutako helburuen aldeko mobilizazioetan parte har dezaten, eta bereziki, Madrilgo azken erabakiak aplikatzea saihesten jarrai dezaten, harik eta Gasteizko zein Iruñeko gobernuak ezarri dituzten murrizketak erretiratu arte.

Ezinbestekoa da mobilizatzen jarraitzea eta aldarrikatzea hemen bertan erabaki behar dugula; hemen bizi garenez eta lan egiten dugunez, hemen negoziatu eta erabaki nahi dugu gure zerbitzu publikoari, zerga-politikari eta eragiten diguten gai guztiei buruz.

ERREZETA

ELAk Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiei exijitu egiten die Madrildik datozen neurriak ez onartzeko, eta bertan behera utzi ditzatela orain arte hartu dituzten neurri murriztaileak: funtzio publikoan dekretu bidez ezarritakoak, sektore ezberdinetan inposaturikoak, aurrekontuetan aplikatutako murrizketak... Eta, azkenik, aldatu ditzatela zerga-politikak eta zerbitzu publikoak indartu ditzatela, gaur egun inoiz baina garrantzitsuagoak diren honetan.

EZ DUTE INOR ENGAINATZEN

ELA zerbitzu publikoak jasaten ari diren eraso sistematikoaren aurka salaketan berretsi nahi da. Lan eta gizarte eskubideen murrizketak gero eta larriagoak dira, guztiz salagarria den enpleguaren galera izugarria eraginez. Era berean, orain arte aurrera eramaten ari garen mobilizazio dinamika berresten gara, Lakuako gobernuaren jarreraren atzean dauden hauteskunde interesetatik harantzago.

Publikoa den guztia suntsitu nahi dute

Gobernu ezberdinek, botere ekonomikoaren menpean, zerbitzu publikoak desagitea erabaki dute.

Unibertsalak, doakoak eta kalitatezkoak diren zerbitzu publikoak izateak, gizarte justuago baten islada dira eta botere ekonomikoek, gizartearen oinarriko beharrek negoziatzea erabaki dute. Zerbitzu publikoak desagiteko estrategia honetan, zerbitzu publikoetako langileak jopuntuan jarri eta desagertarazi nahi duten oztopo bat gara.

Horregatik, bankari zorra eta defizit publikoaren ordainketa aitzakia perfektua dira bere plana aurrera eramateko, enplegu publikoa suntsitzea eta gure lan-baldintzak desagitea.

Martxoaren 29ko Greba Orokorraren ondotik, martxoaren 30ean Aurrekontuen Lege Proiektua onartu zuten Madrilan. Aurrekontu horietan, soldaten izoztea, EPEak ateratzeko debekua, eta neurri berri bezala, oinarriko lege bidez, lanaldia asteko 37,5 orduara igotzea aurreikusi dute. Azken neurri honek, langile bakoitzaren lanaldia ordu askotan luzatuko luke eta igoera honen helburu bakarra, berriz ere, enplegu publikoa deuseztatzea dela argi dago.

Ondoren, Irakaskuntza eta Osasungintzan doikuntza neurri berriak gehitu dituzte. Irakaskuntzaren kasuan, oinarriko izaera duten eta aplikagarriak diren neurriak hauek dira:

- Eskola orduen igoera. Asteko 25 ordu gutxienez Lehen Hezkuntzan eta asteko 20 ordu gutxienez Bigarren Hezkuntzan.
- Bajan dauden langileak ezin izango dira ordezkatu, lehenengo 10 lan egunetan, hau da, bi astetan ordezkapenik ez gitea.
- Soldaten osagarriak izoztu edo murriztu egingo dira.
- Ikasleen ratioak %20 igotzeko aukera ematen zaie.
- Unibertsitatean, irakasleei lanaldi osoa izateko dedikazio orduen igoera, oraingo 24 kredituetatik 36 kreditutara.
- Ikasleentzako unibertsitate tasen igoera.



■ Gutxieneko ikasle kopurua ez duten gradu edo tituluak desagertzea planteatzen da.

Osasungintzaren kasuan, osasun zerbitzu ezberdinak eskaintze-

ko gaitasuna zentralizatu egiten da, Estatu mailan zerbitzu eskaintza bakarra ezarri eta erregulatuko duen dekretu baten bidez. Botika ber-ordaintze karga igotzen da (errezetak gehiago ordaindu behar ditugu) eta lan kategorien homologazio bat ezartzen du eta ziur gaude erabaki hau soldatak eta lan-baldintzak okertzeko erabiliko dela.

Murrizketa hauen eta etorkizunerako pentsatuta dauzkaten aurrean bi aukera besterik ez daude: gure pobretzea modu baketsuan hartzea (gure pobretzea eta langile klase guztiarena) ala borrokatzea. Ez soldatak, ez gastu soziala ez dira gertatzen ari denaren arduradun. Egun oso agerikoa da pairatzen ari garen murrizketa guztiek helburu bakarra dutela: diru hori interesen ordainketaren zerbitzura jartzea eta kapitala ematea Estatuaren zor publikoarekin espekulatzen ari direnei, hau da, botere finantzarioari. Guri lapurtzen digute eurei emateko.

AGINTZEN DUENAK AGINTZEN DUELA BERDIN ARITZEN DIRA

Gobernuan dauden bitartean berdina egiten dute. Orain bi urteko %5eko soldata murrizketa oinarriko neurria izan zen.

Zapaterok inposatu zuen eta Lopez zein Barcinak bete zuten. Zapaterok aldatu zuen Konstituzioa zor publikoarekin espekulatzen dute bankuei ordaintzea lehenetsi zedin. Ez da zilegia, murrizketak aplikatzen aitzindari izan direnean, hauteskondeen aurretik argazki hutsa bilatzen duen zinismo eta hipokresia. Hori da orain arte Gasteizko eta Iruñeko Gobernuak, Diputazioek eta udaletxe askok egindakoa.

Egun Eusko Jaurlaritzak mantentzen duen posizioa koiunturala besterik ez da, alde batetik, gizarteak zein sindikatuek sortutako presioaren eraginez eta, bestetik, Lehendakariak hauteskondeetara Rajoyk agindutakoa betetzeak suposatzen duen karga gabe joateko duen asmoak bultzaturik. Oso ondo dakigu, zoritxarrez, hauteskondeei begira argitara ematen diren posizio eta programak ez dutela zerikusirik boterera iristean ematen diren gobernu ekintzekin. Kasurik onenean, hala uste dugu ELAn behintzat, denbora bat igarota, hauteskunde garaia, pakete osoa mahai gainean jarriko dute. Lehendakariak ondorioak atera ditu, badaki murrizketak aplikatzen dutenek politikoki bere buruaz beste egiten dutela eta, ondorioz, antzezpen baten alde egin du emaitza berera iristeko.

Gure ustez ez da presionatzen jarraitzea beste biderik edozein gobernu edo instituziok murrizketa berririk aplikatu dezan ekiditeko eta orain arte aplikatutakoetan atzera egin dezan.



35 orduak sektore publikoan



Nola eta zergatik: 1998 eta 1999 urteetan, gehiengo sindikalak beste hainbat gizarte eragileekin batera, eskubide sozialen aldeko kanpaina bat egin genuen. Bi oinarrizko helburu izan zituen kanpaina horrek: Oinarrizko errenta ezartzea eta lanaren banaketa, beste neurri batzuen artean, asteko lanaldia 35 orduetan ezarritz.

Kanpaina honetan gizarteratze ekitaldi ezberdinak izan ziren eta bi mugarri izan zituen: Legegintzarako Herri Ekimen bat tramitatu zen parlamentuan eta 1999-ko maiatzaren 21-eko Greba Orokorra.

Presio sozialaren ondorioz, Euskal Legebiltzarrean, EAJ, PSOE, Euskal Herritarrok eta

EBren aldeko botoekin baita Nafarroako Legebiltzarrean PSNren botoekin onartu zen Legea, non bai oinarrizko errenta ezartzen zen baita Sektore Publikoan asteko 35 orduen aplikazioa ere sustatzen zen. Gero, babes hau Negoziazio Kolektiboko bi mahai orokorretan (EAE eta Nafarroa) ziurtatu zen.

Asteko 35 orduak aplikatzeko akordio hauek, beste sektore eta sektore pribatuko enpresa askotara zabaldu ziren. ELAri, haren alde borrokan aritu gineno, ez zaigu ahaztu lortutakoa, seguruenik azken 30 urteetako lorpen sindikalen garairik oparoena, gizarte zein sindikatuen mobilizazioen ondorio izan zela.

37,5 ordu: Lanordu gehiago = lanpostu gutxiago eta baldintza okerragoetan



Lanorduen igoerak lan-baldintza okerragoak eta lanpostu gutxiago suposatuko du. 37,5 ordura asteko lanaldia gehitzea, estatuko oinarrizko legegidiaren bidez ezarri nahi da eta gure erakundeek inposatuko duten, Rajoyren agindua betez, ala ez erabaki beharko dute. Dena den, enplegu suntsiketa ikaragarria eragingo duen lorpen historiko bati eraso bortitza da oraingo hau.

Aipatu erasoak, aurrera eramatekotan, oso larriak diren ondorioak dakartza berarekin. Batetik, zerbitzu publikotako langile askoren kaleratzea ekarriko du eta zerbitzuen kalitatearen okertze larria. Era berean, egoera

ekonomikoa eta sozialak exijitzen duen enplegu sorrera bultzatu beharrean aurkako norabidean doa. Alegia, neurri honek murgildu gaituzten egoera ekonomiko larria are eta gehiago okertzea dakar sartu gaituzten espiral pozoinduan are gehiago sakonduta. Hara Greziako adibidea!

Erabaki hauek aplikatzeak, ordezkapen zerrendetako eta behin behineko langileek lanerako dituzten aukerak gutxitzea dakar ere, baita enplegu finkoa dutenen lan-baldintzak okertzea, plantilen antolakuntza birmoldaketak, lan-kargak handitzea eta orduteguz zein egutegi okerragoak.

Madrietik agindutakoa betetzeak erabakitzekeo ahalmenari uko egitea dakar

Neurri hauek, Euskal Autonomi Erkidego eta Nafarroari transferitutako eskumenetan esku sartze larria suposatzen dute. Madrietik, erkidego, foru eta udal administrazioak, hango sukurtsal bihurtu nahi dituzte Estatu guztian politika bakarra egin dadin, botere ekonomikoari interesatzen zaiona.

Horregatik, herritarrontzat eta langile klasearentzat bereziki, kaltegarriak diren neurriak aplikatzeak botere finantzieroaren aginduei men egitea dakar. Beraz, gure politikoei, Espainiako gobernuak onartutakoa ez bete eta norberaren gizarte proiektuak aldarrikatu edota Madrietik inposatutakoari jarraipen hutsa ematea beste biderik ez dute. **BESTELA PENTSATZEN BADUTE, BESTELA JOKA DEZATELA!!**

Egoera gogor honen aurrean eustea dagokigu. Mugimendu sindikalak ezin dio inongo atzerapausori laguntzarik eman; Administrazio guztietan –gobernu autonomoan, aldundietan, udaletxeetan...– neurri hauek ez aplikatzea bultzatu behar dugu. Gure borondate subiranoaren baiztepan bat da eta gizartearen beharrei erantzuten die.



ADMINISTRAZIOKO LANGILEENTZAT AURREKARI BAT ETA ONDORIO BATZUK»

LEHEN

Asteko 35 orduko lanaldia
Ordezkapenak lehen egunetik
Estatukoak baino soldata igoera handiagoak
BGAE-ei ekarpenak
Enplegu publikoa sortzea (EPEak)
Bajak %100ean osatuta
Jubilazioei sariak
Errelebo kontatua
Adinagatik jardunaldi murriztua
Lan-karga handiak
Kalitatezko zerbitzuak

OFENTSIBAREN HELBURUA

37,5 ordu astean
Salpuespeneko egoeretan bakarrik ordezkutzen da
Soldata murrizketak eta izozteak
Ez dago ekarpenik BGAE-ei
EPEak debekatuta
Bajak partzialki osatuta
Ez dago saririk
Ez dago errelebo kontraturik
Jardunaldi murrizketen desagerpena
Lan-karga jasanezinak
Esfortsuz bakarrik salbatzen de zerbitzua



Eusko Jaurlaritzak diskurtsoa aldatzen du, baina ez sakoneko posizioa

Behin eta berriz murrizketa politikarik aplikatu ez dadila eskatu dugu.

Horregatik mobilizatu izan gara eta mobilizatzen jarraituko dugu. Mobilizazio dinamika honen eraginez, sektore publikoko langileon oposizioarengatik eta gizarte osoarengatik, Eusko Jaurlaritzak bere diskurtsoa aldatu behar izan du. Orain hezkuntza zein osasungintzako murrizketak eta 37 ordu eta erdien aplikazioa konstituzioz kontrako helegitea aurkeztu bitartean aplikatuko ez dituela esaten ari da. Baina errekurtsioa aurkeztean aplikatzeari ateak irekitzen ari da, ordutik aurrera murrizketek efektuak izango dituztela esanez, baina zertaz ari den erabat zehaztu gabe.

PSEren Eusko Jaurlaritzaren pose hau ez du inolako zerikusirik aurreko bare ibilbide politikoarekin eta gai sozialetan zein zerbitzu publikoen alorrean egindakoarekin. Eusko Jaurlaritza bide ezberdinak erabiliz murrizketa politikak aplikatzen aritu da:

- Zapateroren gobernuak orain arte erabakitako eta Rajoy oinarrizko kalifikatutako murrizketak aplikatu izan ditu (soldaten murrizketa, BGAEei ekarpenik ez egitea etab.).
- Bere bultzada propioz lan-baldintzetan murrizketak inposatu ditu (enplegu suntsiketa, hezkuntzan bajak ez ordezkatzeko laugarren egunera arte, enpleguari lotutako akordioak ez betetzea, bajen osagarriak txikitzea, ordezkapenik ez egitea etab.).

Lehendakariak berak Espainiako gobernuaren erabakien aurrean ez duela intsumiso izan nahi adierazi du.

Osasun Sailburuak 37 ordu eta erdien lanaldiari bere sostengua argitara eman zuen. Eusko Jaurlaritzak ez dauka sinisgarritasunik. Argi eta garbi esan nahi dugu zerbitzu publikoen defentsarako aurretik hartutako eta beraiek aplikatutako murrizketak ere ezeztatu behar direla eta Madrileko neurriak ez aplikatzeko ziurtasuna eman behar duela.

Auzitegi Konstituzionalean helegitea aurkezteko asmoa duela adierazteak ez du aurrerapausorik suposatzen. Eusko Jaurlaritzak berak orain 20 urte baino gehiago Auzitegi honetara ez jotzea erabaki zuen, Auzitegi hori autogobernuaren aurrean Estatuaren interesak besterik defendatzen ez zituen auzitegi politikotzat hartuta.

Ordutik hona atzerapauso hauek konfirmatu besterik ez dira egin. Helegite bat aurkezteak autogobernuaren helburuari uko egitea suposatzen du, baita gatazka politikoa izateari ere, hain zuzen, aldebakarreko erabakiz Madriletik murrizketak aplikatzen dituztenen aurrean.

Benetan lan harremanen esparru propio bat defendatzeko eta akordioetara iristeko asmoa baldin badago

moduak daude hemen adostutakoa aplikatu dadin, estatuko legedia ekidinez. Horretarako borondate politikoa besterik ez da behar eta borondate hori da exijitzen duguna. Eta ELAK egindako eskaera honek eragin bera du Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuan, Foru Aldundietan zein Udaletxeetan.



EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGEARI EZETZA

Zerbitzu Publikoak desegiteko eta bere langileen lan-baldintzak okertzeko asmo

honen islada argia da Euskal Enplegu Publikoaren Legea, aurretik gogor salatu izan duguna eta Euskal Funtzio Publikoko Kontseiluak berak kontrako iritzia eman diona.

ELAk hainbat eremuren funtsezko aldatetak exijitu zituen, hala nola kontrol publikoa, gizartearen partaidetza, zerbitzu publikoen garapena edo lan-baldintzen hobekuntzak. Legearen borradoreak prekarietatea eta behin-behinekotasuna mantzentzen dituen sarbiderako sistema ezartzen du, langileen menpekotasun politikoa eta obediencia bultzatzen ditu, ordainketa sistema berregituratzen du eta enplegu publikoaren suntsiketa errazten du.

Ez dugu inola ere onartzen zerbitzu publikoan lan-baldintzen prekariazioa eta kontrol publikoaren ihesa bultzatzeko helburua duen lege hau.

MOBILIZAZIOAREKIN JARRAITU PRESIOA HANDITZEKO

Ezinbestekoa da lan eskubideak eta eskubide sozialak murrizten dituztenengan presioa handitzea, adierazteko modu bakarra duen presio igoera, langileon eta gizartearen mobilizazioarena hain zuzen. Miserira eramaten gaituzten politika hauek aldatzeko mobilizazioa beste biderik ez da izango.

Orain arte izan duguna eta kendu nahi dugutena lortzera eraman gintuen mobilizazio bera.



Zerbitzu publikoetan lanean ari garenek ezin ditugu jasaten ditugun murrizketak modu baketsuan onartu. Murrizketak onartzea zerbitzu publikoak suntsitzea onartzea litzateke, badakigu eta helburua zerbitzu publikoak merkantilizatzea dela. Zerbitzu hauetako langileok ezin dugu besoak gurutzatuta itxaron halako erasoan aurrean. Aurpegia emanez jarraitu behar dugu. Horregatik maiatzaren 31an gure haserrea erakusten jarraitu behar dugu borroka egun baten bitartez.

ZERBITZU PUBLIKOETAKO LANGILEAK EZ GARA KRISIAREN ERANTZULE ETA EZ DUGU ORDAINDUKO!



Mobilizatu!



HARPIDETZA
HOJA DE AFILIACION

N.º AFILIACION / AFILIAZIO ZENBAKIA

Nombre / Izena
1.º apellido / 1. abizena.....
2.º apellido / 2. abizena
Fecha de nacimiento / Noiz jaioa
Lugar de nacimiento (Indicar provincia) /
Non jaioa.....
D.N.I. / N.A.N.

DOMICILIO / HELBIDEA

Dirección / Helbidea.....
Localidad / Herria.....
Provincia / Probintzia.....
Teléfono / Telefonoa.....

EMPRESA DONDE TRABAJA / LANTOKIAREN IZENA

N.º Inscripción Seguridad Social / Aseguro
Sozialaren Zenbakia.....
Nombre / Izena.....
Domicilio / Helbidea
Localidad / Herria.....
Tipo de industria / Industri mota
Convenio / Konbenioa

PAGO DE CUOTAS / KUOTEN ORDAINKETARAKO

Banco o Caja de Ahorros / Bankua edo
aurrezki-kutxa
Sucursal / Sukursala
Nº de cuenta / Kontu zenbakia.....
Tipo de cuota / Zein mailako kuota
Fecha de solicitud / Eskabidea noiz egiten
duzu

Firma / Sinadura

UDALETXE eta DIPUTAZIOAK

■ **22an, 11,30:**
Araba, Bizkaia eta
Gipuzkoako Foru Aldundien
aurrean.

■ **Maiatzaren 31ean,
11,30etan:** instituzio guztien
aurrean konzentrazio zara-
tatsuak.

OSAKIDETZA

■ **Maiatzan zehar:** Asanbladak,
enkarteladak, entzierroak eta
ekintza ezberdinak ospitalean.

■ **31n:** konzentrazioak eta
eserialdiak ospitaleetan.

OROKORRAK

■ **Maiatzak 18:** Eusko
Jaurlaritzaren aurrean, Gasteiz,
11:30etan.

■ **Maiatzak 25:** Kontzentrazioa
Estatuko delegaritzaren aurrean,
11,30 orduan, Bilbon.

IRAKASKUNTZA

■ Celaären agerraldi
publikoetan murrizketen
salaketa.

■ Elkarretaratze zaratatsuak
ikastetxeetan, maiatzaren 10, 17,
22, 24 eta 29an.

■ Itunpeko langileen
kontzentrazioak (**17:** Bilbo eta
Donostia / **24:** Gasteiz).

■ Elkarretaratzea Gasteizko
hezkuntza delegaritzan
maiatzaren **22**an.

■ **Maiatzaren 31n:**
* Kontzentrazioak
ikastetxeetan lehen orduan.
* Klaseak kalean eman.
* Atsedean garaian protesta
zaratatsua (pankarta, kaze-
rolada, txistuak...).

MAIATZAK 31: MANIFESTAZIOAK

Arratsaldeko 6,30etan

* **Donostia: Boulevard-etik**

* **Bilbo: Moyua-tik**

* **Gasteiz: Correos Plaza-tik**



Gizalana

ZERBITZU PUBLIKOETAKO LANGILEEN BOLETINA